



Amonak zutik jarraitzen zuen Maddik telefonoa itzali zuenean.

—Aitak deitu dit —kontatu zion.

—Eta? Pozik egon behar zenuke!

—Bai zera! Ezin direla bueltatu esan dit.

—Horixe bera esan dute albistegian ere. Hegazkinik ez dugu ikusiko pixka batean zeruan. Nire garaian...

—Amona, neure gelara noa, ez zaizu inporta, ezta?

Amonak kontatu nahi zionari kasurik egin gabe, altxatu, musu bat eman eta alde egin zuen. Bakarrik egoteko beharra zeukan, ez zituen berriz ere entzun nahi amonaren gaztetako kontuak. Aspergarriak iruditzen zitzaizkion haren abentura zaharrak. Baina ez zen ausartzen egia esaten. Nahiago zuen aitzakiaren bat bilatu. Beti esaten zion gauza bera amonari: triste zegoela gurasoak urrun zeudelako eta bakarrik egon nahi zuela. Amonak ulertzen zuen. Hori uste zuen neskak behintzat. Egia zen gero bere gelan ez zuela gauza handirik egiten. Ohean etzan eta sabaira begira egoten zen. Gurasoekin irla batean zegoela imajinatzen zuen. Haiekin batera hotel miragarri bateko gelan egiten zuela lo. Herri koloretsu eta ezezagunak bisitatzeko zituztela. Inoiz dastatu gabeko jaki goxoak



probatzen zituztela. Herritarrekin hitz egiten zutela. Hain zoriontsua zen sabaiari begira jartzen zenean! Amesten zuenean bakarrik zeukan bizitzan behar zuen gauza bakarra: gurasoak ondo-ondoan izatea. Maddik bazekien jende askok uste zuela dirua izateagatik zoriontsua zela. Eta pozik bizi zen, bai. Baina ingurukoek zutena falta zitzaion berari: aitak eta amak gauero musu bat eman, argia itzali eta gabon esatea.

Amonaren etxea amona bera baino zaharragoa zen. Maddik deabruaren etxea deitzen zion. Bere gelako atea beirazkoa zen. Maddiri beti iruditzen zitzaion atea laranja azalarekin egin zegoela, beirazko laranja azalarekin. Izan ere, ate hark halako laranja kolore bitxia zeukan. Ilunak ziren etxeak argitzeko erabiltzen ziren horrelako ateak. Maddiren gurasoen etxea oso oso ezberdina zen, noski. Etxebizitza bakarra zen, lorategi eder batera ematen zuten beirate handiak zituen, eta etxe barruan ez zegoen ia hormarik. Gurasoak oporretan joaten zirenean, hau da, ia beti, amona etxera gonbidatzen zuten. Denek pentsatzen zuten askoz hobeto biziko zirela han Maddi eta amona. Askoz erosoago. Etxe hura handia zelako



uste zuten hori. Zabala zelako, oso alaia eta argitsua. Erosotasun guztiak zituelako. Baina amonak beti gauza bera erantzuten zuen: nahiago zuen bere etxean geratu. Hortaz, Maddik amonaren etxera joan behar izaten zuen. Deabruaren etxea ematen zuen espazio ilun eta zaharkitu hartara.

Goiz hartan zarata batek esnatu zuen Maddi. Pertsianak zirrikituak zituen, eta haietatik izpi bat edo beste sartzen zen. Osterantzean, gela ilun zegoen. Baina beirazko atetik tarteka itzal bat pasatzen zela ohartu zen neska.

—Zer arraio da hori? —galdetu zion bere buruari.

Izara azpian ezkutatzeko tentazioa izan zuen, benetako deabrua pasieran egongo ote zen beldurrez, baina amonari deitu zion.

—Amona?

Inork ez zuen erantzun.

—Amona? —berriz, Maddik.

Isiltasuna. Itzala hantxe zegoen, agertuz eta desagertuz. Maddi ohetik atera zen, eta kuxina hartu zuen babesteko.

—Lapurren bat bada? —esaten zion bere buruari—. Ai ama, ai ama, ai ama...



Atearen heldulekua hartu eta itzala parean zegoenean ireki zuen.

—Aaaaaa!!!! —txilio egin zuten bi ahotsek. Eta Maddi kuxina astintzen hasi zen bestearen aurka.

—Maddi!

—Amona!

—Ikaratu egin nauzu, neska!

—Zertan ari zara?

—Pasieran!

—Pasilloan?

—Non, bestela? Ezin da kalera atera! Eta nik derri gorrez ibili behar dut egunean pare bat kilometro. Medikiak esanda, gainera!

Halako batean, gertatu zenaz jabetu eta barrez lehertu ziren biak.

—Gaur neuk egingo dut gosaria. Zor dizut— esan zion Maddik, maitekiro.

—Bai horixe! —erantzun zuen amonak—. Arrautza frijituak urdaiazpikoarekin!

Amonari irratia entzutea gustatzen zitzaion eta gosalduta eta gero sukaldeko aulki bat hartzen zuen; leihotik ozta-ozta sartzen zen eguzki izpiaren azpian esertzen zen eta irrati txikiaren bolumena igoz bere zaletasunari ekiten zion: igeltsuzko figuratxoak akrilikoekin margo-

